

DEIALDIA

Udal-plenoak **2020ko urriaren 28an, arratsaldeko 19:00tan**, Udaletxeko Areto Nagusian ohiko biltzarra burutu behar duelarik, honen bidez deitzen zaizu, aipatu egun eta orduan bertara zaitezen. Bilkuran, atzealdean zehazten diren gaiak aztertuko dira.

Etortzerik ez bazenu, Alkatetza honi jakinaraztea eskatzen dizut, hala jasota gera dadin.

Oiartzunen, sinaduraren datan.

ALKATEAK,

**2020ko urriaren 28an, 19:00tan** egingo den

UDAL OSOKO

OHIKO BATZARRALDIKO

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onarpena.
2. Egiari Zor Fundazioaren mozioa, EHBildu udal taldeak aurkeztutakoa, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko, biktima horien erreparazioa eta aitorpena tramitatzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legean oinarrituta.
3. ELI-2 eremuko sistema orokorraren desjabetzapenaren inguruko 1278/2017 Administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako epaiaren aurrean, Inmobiliaria de Orio Txoko Txiki, S.L.k jarritako Kasazio Errekurtsoan bertaratzeko erabakia.
4. Elizalde auzoko ELI-1A Elizalde erdigunea areako birgaitze Plan Bereziaren behin betiko onarpena.
5. Oiartzungo Udala eta Oiarpe Pilota Kirol Elkartearen arteko hitzarmenaren onarpena.
6. 2020ko Gestio Planaren onarpenerako Oiartzungo Udala eta Oarsoaldea S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.
7. 1936 urtetik gaur arte Oiartzunen egondako giza eskubideen urraketan ikerketa egiteko Oiartzungo Udala eta Aranzadi Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.
8. Auto-taxi garraiorako hiri zerbitzuen 2021 urterako tarifen onarpena.
9. Mendiburu kalea 14ko zerbitzu anitzeko udal ekipamenduaren proiektuko 1. faseko (eraietan proiektua) eta 3 faseko (oinarrizko eta gauzatze proiektua) lanen kontratu-etenaldia luzatzearen berri ematea.
10. 2020ko Finantza Kontroleko Planaren berri ematea.
11. 2020ko hirugarren hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioaren, aurrekontuz kanpoko mugimenduen, diru-fluxuen egoeraren eta diruzaintzaren egoeraren berri ematea
12. Beste organoen jardueraren jarraipena.
13. Eskari-galderak.

=====